

BORONDATEZKO ERRETIROA

ARAUDIA:

- Estatuko Klase Pasiboen Legearen Testu Bategina, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia.

- Administrazio Publikorako Estatu-idazkaritzaren 1995eko abenduaren 29ko Ebazpena, Estatuko klase pasiboen araubideko estaldura-esparruaren barruko langile zibilek erretiroa hartzeko prozeduren gaineko arauak jasotzen dituen.

BETEKIZUNAK:

Funtzionarioek borondatezko erretiroa hartzen ahal dute eskatutako erretiroaren datan honako baldintzak betetzen badituzte:

1-. **60 urte** beteak izatea.

2-. **Estatuarentzat lanean 30 urteko benetako zerbitzualdia** aitortua izatea.

2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, dagokion pentsioa jasotzeko eskubiderako baldintza izanen da **zerbitzuen azken bost urte zenbagarriak Estatuko klase pasiboen araubideko estaldurapean** izatea, exijitutako zerbitzuen 30 urteak osatzeko beste araubide batzuetako kotizazio epeak zenbatu beharra dagoenean, Gizarte Segurantzako araubideetan kuotak **batera konputatzeari** buruzko arauak aplikatzearen ondorioz. Hori hala izanik ere, jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan, edo senitartekoak zaintzeko edota genero indarkeriagatik eszedentzian dauden Estatuko Administrazioaren langileei, funtzio publikoaren araudi orokorrean arauturiko sarrera eta igoera prozesuak gainditzearen ondorioz gizarte babeseko araubidez aldatzen badute, 2010eko abenduaren 31n indarrean zen araudia aplikatuko zaie borondatezko erretiroari dagokionean.

Erretiro pentsioaren zenbatekoa **Estatuko Klase Pasiboen** unitateak zehazten du beti (Yanguas y Miranda kalea, 31, 6.a, Iruña. Tel.: 948 20 33 31)

PROZEDURA:

Interesdunak eskatuta hasten da. Idazki bat aurkeztu behar du, gutxienez hiru hilabete lehenago, erretiroa zein egunetan hartu nahi duen esanez (ezinbesteko datua da).

- Giza Baliabideen Zerbitzuak egiaztatuko du funtzionarioak behar diren baldintzak betetzen dituen eta “J” inprimakia igorriko dio non adieraziko diren, besteak beste, funtzionarioaren espediente pertsonalean ageri diren Administrazio Publikoentzat emandako zerbitzuak.

Gizarte Segurantzaren sistemako araubideren batean kotizazioak egiaztatuta dituzten Estatuko Klase Pasiboen Araubide barruko funtzionarioek eska dezakete kuotak batera konputatzea, ondorioak izan ditzan pentsiorako eskubidea eskuratzeko zein pentsioaren kalkulurako aplikatuko den ehunekoa zehazteko.

Ondoren, erretiroaren gaineko ebazpena eman eta igorriko zaie interesdunari eta pentsioa ordaintzeko eskumena duten erakundeei.